



Mugaburu

etxebizitza

Aldacrak:
Ahozkoa:



43° 10' 54"

2° 36' 17"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

Abadiñoako Gerediaga auzotik Garairantz doan bidearen ondoan kokatzen den bizitza bateko txalet berria. Errepide horretako zenbait momentutan Berrizen eta Garairen arteko muga markatzen da, eta, muga inguruan egonda, *Mugaburu* izena hartu zuen eraikinak. Atartean “2002. urtea” inskripzioa du jarrita, eta goialdean agertzen den balkoiaren gainean, aldiz, “MUGABURU” izena agertzen da.

Etxe berria, inguruko tradizioari keinu bat baino gehiago eginaz egiten ari direna. Hau da, bi

isuritako teilatua eta hegal zabalekoa, beso handiek eusten diotena. Fatxada hiru ardatzen arabera eratu dute. Erdian, sarrerako arkuak, gaineko balkoi sakona, egurrezko dintelduna, izena rekin, eta teilatupean, puntu erdiko leiho bikoitza. Aldamenetan, egurrezko besoek berezita, leiho txiki bana. Alboko ardatzetan, leiho bana. Fatxadan, aipatutako egurrez gain, adreilua erabili dute eta harria, bao guztiak inguratzeke, aldamentako leihoburuak izan ezik.

toponimia

Eraiki berria den etxe honek bertako ezaugarria hartu zuen izen moduan Euskal Herriko ohiturari jarraiki.